



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/23

## **Batzar Nagusiak, Zorrotzan Euskal Herriko Errota Handien eraikinean industriaren museoa instalatuko aukerea aztertzearen alde**

Batzarretako talde guztiak ados agertu dira gaur, Bizkaiko Foru Aldundiak, “legealdi hau bukatu aurretik, gure lurraldean Industriaren eta Teknikaren Museo bat sortzeko eta ezarteko estrategia” aurkezteagaz. EH Bilduk ekarri dauen proposamenak Bizkaiko Batzarren aldeko eretxia jaso dau Euskera eta Kulturako batzordean. PP taldea izan da zalantzak agertu dituan bakarra, bere abstentzinoagaz, Zorrotzako kaian (Bilbon) dagon Euskal Herriko Errota Handien eraikina leku egokiena izango ete dan. Une honetan egoera txarrean dagon higiezina, Eusko Jaurlaritzak Monumentu izendatutakoa, onetsitako arauz besteko proposamenean “egon daitekezan aukeren arteko bat” moduan planteetan da onetsitako proposamenean.

Txusa Padrones EH Bilduko batzordekidea izan da arauz besteko proposamena Bizkaiko Batzarren aurrean defendidu dauena, bere berbetan “80ko hamarkadan” hasi zan eztabaidea jasoz. Garai haretan, erakunde publikoek ikusi eben “atzeratu ezinezkoa” zala gure industria iragana erakutsiko leuken “erreferentziazko” kultur gunea bat eregitea Bilboko itsasadarraren ezker aldean. Idea hori “berreskuratzeko” eta Bizkaiko gizartearen “eskari bat balioan jarteko” unea heldu da.

Horri jagokonez, Zorrotzan “oso egoera txarrean” bizirik irauten dauen eraikina, industrializazioaren ia mende bietan sortu dan ondare materiala eta ez-materiala jasotzeko “eukitzaile duina” izan daitekela defendidu dau Padronesek. Gaur egun Frantziako uriburuko VII Denis Diderot Unibersidadeko liburutegia dan Parisko “urun” eraikin baten egoera izan zanaren antzekoa dala adierazo dau.

Zorrotzako urun lantegi zaharra izandakoa oso kokaleku “egokia” izango litzateke, higiezin hori “errez” iristeko lekuan dagolako, bai errekatik eta baita lehorretik be. Renferen Aldirietako geltokitik oso gertu dago, eta errepidetik be oso ondo komunikauta dago. “Zorrotzako puntea bizi-barrizteko aktiboa” izango litzateke, Padronesen eretxiz. Dana dala, argi itzi gura izan dau ez dala “itxiztat” emon behar kokaleku hori.

Bizkaiko Batzarretako gainerako taldeak ados agertu dira Aldundiak lurraldean Industriaren eta Teknikaren Museo bat sortzeko eta ezarteko estrategia bultzatzeagaz. Podemos Bizkaia taldearen eretxiz EH Bilduren proposamena “interesgarria eta beharrezkoa” izan dan bitartean, Talde Mistoa Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioaren alde agertu da, espazio barri horretan “zientzia” be sartu daiten, erakusteko elementu moduan.

PP taldeak, bere aldetik, industriaren inguruko museoa sortzearen eta urun eraikin zaharra berreskuratzearren alde agertu arren, zalantzan jarri dau Bilboko auzo horretan dagon higiezina museoaren kokaleku moduan planteetea, eta Ezker aldean beste aukera batzuk ez aztertzea, eskualde hori “gure industria iraganaren erreferentzia” dalako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Sozialisten eretxiz, kokalekua “beste bat izan daiteke”, baina euren ustez “garrantzitsua” da daborduko erabilten ez dan Zorrotzako lantegiaren aukerea kontuan hartzea. Dana dala, leku hori “egokia dan” ala ez aztertu beharko da. “Ez dot uste ezkerraldeak plus berezirik daukanik”, adierazo dau Josu Montalbánek. Jane Eyre Urkieta jeltzaleak, bere aldetik, “posible” ikusi dau Aldundiak lurralderako beste museo bat eregiteagaz erlazinautako estrategia definidutea.

**GALEAKO ITSASARGIA ETA GOTORLEKUA BALIOAN JARTEA ETA INDUSKETA ARKEOLOGIKEOTARAKO LAGUNTZAK**

Beste alde batetik, Talde Mistoaren proposamena kontuan hartuta, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deustie Foru Aldundiari, Getxoko Udalaren aurrean “interesa agertu daian”, Galeako itsasargiak eta gotorlekuak osatzen daberen moltsoa etorkizunean balioan jarteko beharretan laguntzeko. EH Bildu izan da arauz besteko proposamenaren bozketan abstenidu dan bakarra, itsasargiaren eskumena Portuarena dala eta gotorlekuarena, barriz, Udalarena, gogoratuazoz. Neurriak hartzearen alde agertu dira, baina gotortutako gunearen “erabilera publikoa” bermatuz eta, beti be, iradokizunak jasoteko partaidetzan oinarritutako prozesua zabaltzen bada. Gogoratuazoz dabenez, bere egunean hutsik geratu zan Portuko Agintaritzak bertan jatetxe bat inestetako deitu eban lehiaketean.

Horrez gain, Talde Mistoaren ekimenez, baita be, Bizkaiko Batzarrek eskaria egin deustie Aldundiari, oraingo honetan aho batez, Foru Erakundeak etorkizunean egin beharreko arkeologia edo paleontologia indusketetarako laguntza espezifikoa hornitzea “aztertu daian”, “abagune teknikoek edo lortutako emaitzek komenigarria dala erakusten dabenean”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
23/10/2017

## **Las Juntas Generales abogan por que se analice la instalación de un museo de la industria en el edificio de Grandes Molinos Vascos, en Zorroza**

Todos los grupos junteros han mostrado hoy su conformidad a que la Diputación foral de Bizkaia presente “una estrategia, antes de que finalice esta legislatura, para la creación e implementación de un Museo de la Industria y la Técnica en nuestro territorio”. La propuesta traída por EH Bildu ha recibido esta mañana el apoyo de la Cámara vizcaína en la comisión de Euskera y Cultura. Sólo el PP ha mostrado sus dudas -se ha abstenido- en relación a que su ubicación sea el edificio de Grandes Molinos Vascos ubicado en el muelle de Zorroza (Bilbao). El deteriorado inmueble, catalogado con la categoría de Monumento por el Gobierno vasco, se plantea en la proposición no de norma aprobada como una de las “diferentes posibilidades”.

La juntera de EH Bildu Txusa Padrones se ha encargado de defender ante el Parlamento vizcaíno la proposición no de norma, recogiendo el debate iniciado, según ella, “en la década de los 80”. En aquella época, las instituciones públicas ya vieron que era “inaplazable” plantearse la construcción de un centro cultural “de referencia” en la margen izquierda de la ría de Bilbao que mostrara nuestro pasado industrial. “Ha llegado el momento de recuperar” esa idea y “poner en valor una demanda” de la sociedad vizcaína.

En este sentido, Padrones ha defendido que el edificio que “malsobrevive” en el muelle de Zorroza, podría ser un “digno continente” que recoja el abundante patrimonio material e inmaterial que se ha ido creando a lo largo de casi dos siglos de industrialización. Ha visto una similitud con otro edificio “harinero” de París que hoy cumple las funciones de biblioteca de la Universidad VII Denis Diderot de la capital francesa.

Su ubicación, en la antigua fábrica de harinas de Zorroza, sería “idónea” ya que este inmueble se enclava en una zona con “fácil” accesibilidad, tanto por vía fluvial como por tierra. Está muy cerca de la estación de Cercanías Renfe y bien comunicada por carretera. Sería “un activo para la regeneración de punta Zorroza”, ha dicho Padrones, quien ha dejado claro, no obstante, que no es un emplazamiento que deba darse “por cerrado”.

El resto de los grupos de la Cámara vizcaína han mostrado su conformidad a que la Diputación impulse una estrategia para la implementación en Bizkaia de un museo de la industria y la técnica. Mientras que Podemos Bizkaia tildaba la propuesta de EH Bildu de “interesante y necesaria”, el grupo Mixto ha apostado por un acuerdo entre la Diputación y el Gobierno vasco para que se incorpore al nuevo espacio “la ciencia” como elemento expositivo.

Por su parte, el PP, pese a compartir la necesidad de crear un museo en torno a la industria y de recuperar el viejo edificio harinero, ha cuestionado que se plantee ya como posible ubicación el inmueble situado en el barrio bilbaíno y no se analicen otras posibilidades en la Margen Izquierda, comarca que “es la referencia de nuestro pasado industrial”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Para los socialistas, el emplazamiento “podría ser otro lugar” pero creen “importante” que se analice la ubicación en la fábrica en desuso de Zorroza, aunque habrá que tener en cuenta la “idoneidad” del espacio. “No creo que la Margen Izquierda tenga un plus especial”, ha señalado Josu Montalbán. A su vez, la jeltzale Jane Eyre Urkieta ha visto “posible” que la Diputación defina una estrategia en relación a la construcción de un nuevo museo para el territorio.

**PUESTA EN VALOR DEL FARO Y FUERTE DE LA GALEA, Y AYUDAS PARA EXCAVACIONES ARQUEOLÓGICAS**

Por otro lado, a propuesta del grupo Mixto, las Juntas Generales de Bizkaia han instado a la Diputación Foral “a interesarse” ante el Ayuntamiento de Getxo para colaborar en la futura puesta en valor del conjunto formado por el faro y el fuerte de La Galea. Sólo EH Bildu se ha abstenido en la votación de la proposición no de norma, advirtiendo que el faro es competencia del Puerto y el fuerte del ayuntamiento. Abogan por que se adopten medidas de restauración pero garantizando “el uso público” del espacio fortificado y siempre que se abra un proceso participativo para recabar sugerencias. Han recordado que, en su día, quedó desierto un concurso de la Autoridad Portuaria para instalar un restaurante.

Asimismo, a iniciativa también del grupo Mixto, la Cámara vizcaína ha instado a la Diputación, en este caso por unanimidad, a que la institución foral “estudie” la dotación de ayudas específicas para futuras campañas de excavaciones arqueológicas o paleontológicas “cuando las circunstancias técnicas o los resultados obtenidos lo aconsejen”.